


IKUSPEGI PEDAGOGIKOA



SORKIN

Sorkin elkartean uste dugu **hezkuntza gizarte-eraldaketarako oinarrizko elementua dela**, izan ere:

- Erakusten dugun ezer ez da **neutrala**: metodologia, eduki eta gai ororen atzean oinarri etiko eta politikoak daude, emaitza jakin batzuk bilatzen dituztenak.
- Erakusten dugun guztiak du eragina gure jendartea gidatzen duten **botere-harremanetan**. Horregatik, oinarrizkoa deritzogu legitimotzat hartutako ezagutzaren baitan ematen diren botere-harremanak etengabe berrikustea. Batez ere, zientziaren arloan, jendartea moldekatzeko eta kontrolatzeko erreminta den heinean.

ELEMENTU NAGUSIAK

☐ **BIZITZA ERDIGUNEAN KOKATZEN DUEN ZIENTZIA**

Hainbat korrante feministatik sortutako **bizitzaren jasangarritasuna** dugu inspirazio-iturri. Guztiok merezi duten bizitzak bizitzeko aukera izateko moduan jendartea antolatzearen beharra azpimarratzen dute korrante horiek, batera existitzen diren aniztasuna eta errealitate ezberdinak kontuan hartuta.

Ikuspegi horretatik ulertzen dugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren parte dela **bizitzaren zaintza**, zeinak pertsonen eta naturaren zaintza lehenesten dituen, ikaskuntza prozesuan ikuspegi etikoa eta ekintza arduratsua barneratuz.

☐ **BIZIPENETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA**

Subjektibitatearen garrantzia aintzat hartzen duen hezkuntza bultzatu nahi dugu, norbere bizipenetan eta bizipen partekatuetan ere oinarritzen dena, esperientziatik eratorritako ezagutza agerrarazten duena, testuinguruari lotutakoa, egunerokotasunarekin eta jarduera zehatzarekin harremana duena.

Ikuspegi horretatik norbere **bizitzako esperientziarekin** lotutako ikaskuntza bultzatu nahi dugu, emozioak eta gorputza oinarritzko osagai dituen, eta aldi berean sormena, jakintza-aniztasuna eta ikasketa-testuinguru ezberdinak bultzatzen dituen.

Hori guztia gure memoria kolektiboari, kultura-ondareari eta iraganean sortutako analisiei uko egin gabe.

☐ **HEZKUNTZA KRITIKOA**

Kontzientzia kritikoa sortzea helburu duen hezkuntza bultzatu nahi dugu, ezagutzaren legitimazio-prozesuan ematen diren botere-harremanak etengabe aztertuko dituen, pauso bat harago joango dena, eta eraldaketa sozialerako ekintzak eragingo. Guztia ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonen burujabetzearen alde.

ZER EGITEN DUGU, NOLA ETA ZERTARAKO

Aurreko elementuak gure ikuspegi pedagogikoaren oinarritzat harturik, ezinbestekoa deritzogu ondorengoak lantzeari:

EMOZIOAK, GORPUTZA, SORKUNTZA, IMAJINAZIOA ETA INTUIZIOA

- **Hezkuntza emozional pertsonal eta kolektiboa**, besteak beste, elkartasuna, enpatia eta autoestimua bultzatuko dituen eta amorrua, beldurra eta ezina onartzen eta kudeatzen lagunduko duena. Bizi izandakoa eta sentitutakoa ikasketarako bide dira hezkuntza mota horretan.
- **Gorputzetik lan egitea**, zentzumenak berreskuratuta eta ikaskuntzarako espaziotzat hartuta norbere gorputza.
- **Sormena, imajinazioa eta intuizioa** lantzea jakinguratik abiatuta, eta baita aurkitzeak eragiten duen atseginetik eta gozamenetik ere; era berean, ezinbestean gertatzen diren **hutsegiteak ikaskuntza-prozesuaren oinarrizko elementutzat** hartzea. Zientzia lantzea bilaketatik, aurkikuntzatik, jolasetik, norbere buruari galderak egitetik eta huts egitetik abiatuta.

EGUNEROKOTASUNA ETA DIZIPLINARTEKOTASUNA

- **Diziplinartekotasuna eta transdiziplinaritatea** lantzea bizi dugun errealitate konplexua aintzat hartzen duen ikuspegitik, artea, humanitateak eta zientzia elkarrekin lotuta.
- Sistemaren **begirada holistikoa eta konplexua**. Ezagutzen ikuspegi sistemikoa bultzatzea eta baita jakintza-arloen arteko diziplinartekotasuna.
- **Naturarekin eta ingurunearekin lotura**. Lurrera, elikagaietara edo ziklo naturaletara hurbilduz, horien parte garela eta, hortik, ezagutza ere sortzen dela ulertuz. Era berean, gure inguruko pertsonengana eta kolektiboengana ere hurbilduz.
- **Eguneroko bizitzarekin harremana**, egunerokotasunarekin eta norbere bizitzarekin lotutako bestelako ikasketa-testuinguruei leku eginez. Ikasgai ditugun ezagutzeekin lotutako prozesuak sentitzea, esperimentatzea edo aztertzea.

ANIZTASUNA, EZAGUTZA KOKATUA ETA GUZTION ONGIA

- **Aniztasuna** egikeretan, begiradan, ezagutza sortzeko eta transmititzeko moduetan. Horretarako, jakintzen aniztasuna ageriko egin behar da, ulertuz ez dagoela egia bakarra, ezpada ezagutza oro **ezagutza kokatua** dela.
- **Jakintzen arteko elkarrizketa**, gizarte-erlaketarako prozesu errealak sortzeko gai den subjektu politikoa eraikitzeko.
- **Pertsonetan zentratzea**, beren beharretatik abiatuta. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonen behar eta interesei egokitzea, beren motibazioa erraztea, ikaskuntzari zentzua eta garrantzia ematea, ikaskuntza esanguratsua izan dadin.
- **Parte-hartzea eta lan kooperatiboa**, ezagutza modu partizipatibo eta horizontalean eraikitzeko.

Aurrekoak landuz, lortu nahi dugu:

- **Emakumeen eta beren jakintzen erreferenteak sortzea.** Horretarako, historian zehar bizitzaren jasangarritasunerako, giza eta ingurumen-ongizaterako oinarritzko izanik, emakumeek egindako lanak errekuiperatzea eta balioestea.
- **Ugalketa-eta zaintza lanen atzean dagoen zientzia agerraraztea.** Horrekin batera, bizitza sostengatzeko oinarritzkoak diren lanek "legitimotzat hartutako ezagutzen" beren lekua izatea bultzatzea.
- **Erantzunkidetasuna sustatzea** zaintza lanetan, eta horrekin batera maskulinitasun hegemonikotik aldentutako bestelako maskulinitasunak.

GURE LANAREN OINARRIAN DAUDEN ORRONTA-PEDAGOGIKO NAGUSIAK

Aurreko guztia oinarrituta dago haibat korronta pedagogikotan, batez ere, ondorengo hauetan:

☐ **HEZKIDETZA¹ ETA PEDAGOGIA FEMINISTAK²**

Bi korronta hauen oinarrian dago egungo hezkuntza-eredua neutrala ez delako ustea, indarrean dagoen maskulinitate hegemonikoarekin lotutako balioak transmititzen dituelakoa. Hezkuntza-eredu horrek ezagutzaren subjektu sortzaile bakartzat hartzen du gizona, eta horrek eskolako edukiak esperientzia maskulinoaren arabera finkatzen ditu, eta baita lantzen diren problemak eta ikaskuntza-testuinguruak ere, besteak beste. Eta, gogora dezagun, ez edozein maskulinitaterena, hegemonikotzat hartzen denarena baizik: maskulinitate zuria, klase sozial ertain-altukoa, hiritarra, heldua, heterossexuala, etab.

Egoerari aurre egiteko, ikuspegi feminista eta metodologia hezkidetzaileak erabiltzea gomendatzen dugu, helburu hauekin:

- pertsonen garapen integrala bultzatzea, generoa, arraza, gizarte-maila, sexu-orientazioa edo beste baldintza intersektionalak kontuan hartu gabe.
- transmititu zaizkigun errealitatea ulertzeko modua eta pentsamendua auzitan jartzea
- emakumeak eta ezagutza hegemonikoaren bazterretako kolektiboak ikusarazi eta baloratu egiten duena, haien ekarpenak eta harremantzeko eta elkarreragiteko moduak.
- historia eta ezagutzaren eraikuntza berrinterpretatzea
- ezagutza (berau sortzeko, transmititzeko eta birsortzeko era ezberdinak) abordatzeko bestelako modu pedagogikoak bilatzea, ikasleen bizitza-esperientziari loturikoak

¹ Ikuspegi honetan sakondu nahi izanez gero, Marina Subirats egilearen "La coeducación hoy: Los objetivos pendientes" testua irakurtzea gomendatzen dizugu. Esteka honetan topa dezakezu: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formacion/es_def/adjuntos/2010.09.21.marina.subirats.pdf

² Ikuspegi honetan sakondu nahi izanez gero, Luz Maceira Ochoa egilearen "Una propuesta de pedagogía feminista: teorizar y construir desde el género, la pedagogía y las prácticas educativas feministas" artikulua irakurtzea gomendatzen dizugu. Esteka honetan topa dezakezu: https://www.academia.edu/3348598/Una_propuesta_de_pedagog%C3%ADa_feminista_teorizar_y_construir_desde_el_g%C3%A9nero_la_pedagog%C3%ADa_y_las_pr%C3%A1cticas_educativas_feministas

☐ **GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA ETA Y HEZKUNTZA ASKATZAILEA³**

Pertsonen trebakuntza integrala bultzatzen duen hezkuntzaren alde lan egiten dugu, **gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin** bat eginez, eta baita **hezkuntza askatzaile** deiturikoarekin ere. Hezkuntza mota horren helburua da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen dutenei beren egoeraz hausnarraraztea, eta kontzientzia kritikoa sortzea egoera hori aldatzeko lan egin dezaten modu kolektibo eta sozialean, ekintza eraldatzailearen bidez.

Hau da, hezkuntza emantzipatzaile baten alde lan egin behar dugu, bakoitzak aurre egin beharreko zapalkuntzez jakitun izan behar dugu, baina baita gure pribilegioez ere, eta horrek dakarren erantzukizunetik jokatu behar dugu.

☐ **ZIENTZIA ETA FEMINISMOARI BURUZKO IKASKETEN DIMENTSIO PEDAGOGIKOA⁴**

Ikasketa hauek zientziaren eta hezkuntzaren arteko harremana begirada kritikoz lantzea proposatzen dute. Guk beren helburu politikoarekin bat egiten dugu: praktika zientifikoan ematen den sexismoari eta andrzentrismoari aurre egitea. Hala ere, arrazakeriaren, kolonialismoaren, adoltozentrismoaren, klasismoaren eta sistema zientifikoa blaitzen duten gainerako baldintza hegemonikoen aurkako jarrera ere aipatu behar dugu⁵. Darabilgun oinarri pedagogikoak **ezagutzaren epistemologia feminista** aldarrikatzen du: zer eta nola ezagutzen dugun kontziente izatea bilatzen dugu, eta, batez ere, zer eta nortzuk gelditzen diren ezagutza horretatik kanpo. Zientzia eta teknologiari buruzko ikasten bidez hori lortzeko, testuinguru historikoa aipatzearen garrantzia azpimarratzekoa da, nola eraiki den ezagutza eta noren eskutik. **Zientziaren nozioa errebisatu eta zalantzan jarri** nahi dugu ikuspegi feministatik.

³ Si quieres profundizar más en este enfoque te recomendamos la revista Hariak, del Instituto Hegoa. En el siguiente enlace podéis encontrar todos los números:

<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/signat?qs=P-HARIAK.+Recreando+la+educaci%C3%B3n+emancipadora>

⁴ Si quieres profundizar más en este enfoque te recomendamos el artículo de Marta I. González y Eulalia Pérez Sedeño, "Ciencia, Tecnología y Género". Puedes descargarlo en el siguiente enlace:

<https://www.oei.es/historico/revistactsi/numero2/varios2.htm>

⁵ Ildo horretan, Yuderkis Espinosa-Miñosori "Una crítica descolonial a la epistemología feminista crítica" artikulua irakurtzea gomendatzen dizugu. Hemen dago eskuragarri: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=32530724004>

☐ **IKUSPEGI FEMINISTADUN ELIKADURA BURUJABETZA⁶**

Nekazarien ezagutzak sozialki balioetsitako ezagutzatik kanpo gelditu dira, emakumeak izanik nekazaritzaren eta elikaduraren alorrean historian zehar jakintza metatu eta transmititu duten subjektuak. Hori hala izanik, **ikuspegi feninistadun elikadura burujabetza** gizarte-eraldaketarako estrategia izan daiteke, ekitatea eraikitzeko. Ikuspegi horrek gaur egungo nekazaritza eta elikadura ereduaren eragina kaltegarriak salatzeaz gain, ekoizpen, transformazio eta kontsumo eredu alternatibo baten alde lan egiten du, bidezkoa, iraunkorra, ekologikoa, gertukoa eta ekitatiboa izan dadin.

☐ **PEDAGOGIA FEMINISTA DESKOLONIALA⁷ ETA JAKINTZEN ELKARRIZKETA**


Zientzia androzentrismoz blaitua dago, arrazismoa, kolonialismoa, heteronormatibitatea edo adultzentrismoaz bezalaxe, berau blaitzen duten ezaugarri hegemonikoetako batzuk bakarrik aipatzeagatik.

Pedagogia dekolonial feministak gure artean dauden kolonialtasun anitzak jartzen ditu mahai ganean, hala nola jakintzarena, izatearena, politikarena, generoarena, etab. Hemendik abitatuta, izateko eta munduan egoteko modu ugari eraiki ahal izateko, gainerakoei izateko modu bakarra inposatu gabe.

Aniztasunetik abiatuta jakintzen arteko elkarrizketa behar da, norbanakoen nahiz kolektiboen artean modu kontzientean trukatzeari. Subjektuak azterketatik, munduaren begiradetatik eta kosmoikuspegi desberdinetatik abiatzen dira, ezagutza berriak kolektiboki sortzeko abiapuntu gisa. Baina elkarrizketa egon dadin, beharrezkoa da horiek guztiak aitortzeko baldintzak egotea.

⁶ Ikuspegi honetan sakondu nahi izanez gero, "Hezkuntza kritikoa eta eraldatzailea: Bigarren hezkuntzako zentroetan elikadura burujabetza genero ikuspegitik txertatzeko esparru teoriko-pedagogikoa" gida didaktikoa irakurtzea gomendatzen dizugu (Alimentacion programaren baitan sortua, VSF-Bidezko Elikadura eta Hegoa Institutuaren eskutik). Esteka honetan topa dezakezu: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/eu/publications/373>

⁷ Gai honetan gehiago sakondu nahi baduzu, Yuderlys Espinosa-Miñoso et. al-en testua gomendatzen dizugu: "Reflexiones pedagógicas en torno al feminismo descolonial. Una conversa en cuatro voces" ondorengo liburuaren barne dagoena, "Pedagogías decoloniales. Prácticas insurgentes de resistir, (re)existir y (re)vivir. Tomo I" . Esteka honetan deskarga dezakezu: https://www.researchgate.net/publication/368840775_Pedagogias_decoloniales_Practicas_insurgentes_de_resistir_eexistir_y_revivir_Tomol



SORKIN

ALBORATORIO DE SABERES / JAKINTZEN IRAULTEGIA

www.sorkinsaberes.org

Argitalpena: Sorkin, Alboratorio de saberes / Jakintzen iraultegia

Azken eguneraketa: 2025ko maiatza